

Festa egunak igaroko dituzte

Ama Guadalupekoaren omenezko jaiak ospatzen ari da Extremadura Etxea; herritarrek deitu ditu jardueretan parte hartzera / 4

Kirol proiektua, aurrera

Atsobarreko egitasmoa izan du hizpide udal korporazioak ikasturteko aurreneko saioan / 2

GurasoLeku egitasmoa martxan da: izen emateak hilabete honetan egingo dituzte / 3

Belartietara eta Fernandez herritarren ontziak Kontxako Banderaren ohorezko txandan izango dira / 10

ZURELENTEEN EROSKETAREKIN

MONTURA DOAN
+
2. betaurrekoa
OPARI

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



R.P.S. 91/20

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com   

Atsobakarreko kirol proiektua aurrera doa

Herriko auzo horretan kirol eta atletismo pista bana eraikitzeko egitasmoaren espedientea onartu du udal korporazioak. Proiektuak aurrera jarraitzeko nahikoa babes jaso badu ere, oposizio alderdiek udal gobernuaren kudeatzeko modua kritikatu dute

Txintxarri

Hilabetea hastearekin batera, ezohiko saioa egin zuen udal korporazioak. Batez ere, Atsobakar auzoko kirol egitasmoa izan zuen hizpide. Besteak beste, hau guztia onartu zuten: San Juan Arkitektura enpresak egindako eraikitze proiektua onartzea; inbertsioa 6.661.098,96 eurokoa izatea; lizitazioa udalaren iturrien bidez iragartzea; eta kontratazio mahaia osatzea.

Bozka azalpenaren txanda ireki aurretik, eztabaidarena zabaldu zuten. Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiko bozeramaile David Aresen hartu zuen hitza. "Herritarren beharrei erantzuten dien egitasmo bat izan arren, bi kontu mahaigaineratu nahi ditugu: batetik, ez dugu ulertzen zergatik garestitu den horrenbeste proiektua aurkeztu zenetik hona, eta bestetik, nahiko genuke udal gobernuak gardentasun gehiagoz jokatu izana, dokumentazio guztia kontsultatzeko oso denbora gutxi izan baitugu, abuztuaren 22tik gaur arte". Datu batzuk mahaigaineratu zituen Aresen: "2021eko inbertsio plana aurkeztu zuenean udal gobernuak, kostua 4.223.000 eurokoa zen, eta oraingoa, sei milioi baino gehiagokoa. Bestalde, 2017tik 2021era bitarteko KPIa %9,3 hazi da eta eraikuntza materialen prezioa %21 garestitu; Atsobakarreko egitasmoa, berriz, bost bider garestitu da [2017ko apirilean *Lantzen* aldizkarian udalak argitaratu zuen 1.230.000 eurokoa izango zela, Aresen arabera]."

Agustin Valdivia alkateak hartu zuen hitza ondoren, ELOPi erantzuteko. "2017ko *Lantzen* aldizkariko datua okerra da, argi dago hori. Gainerakoan, datu batzuk ematen dituzue baina ez guztiak, demagogia egiten ari zarete. 2021ean bertan zenbat garestitu da bizitza oro har? Bi adibide: altzairu kilo batek 1,75



Atsobakarreko egitasmoaren bozeto bat. LASARTE-ORIAKO UDALA

euro balio zituen urte hasieran, eta 6,25 euro orain; hormigoiaren kasuan, metro kubiko batek 82 euro balio zituen lehen, eta 145 euro orain". Gardentasun ezari buruz, Valdiviak azpimarratu zuen "galdera guztiak" erantzun dituela udal gobernuak haiengana zuzendu direnean, eta eskatu batzorde informatiboak erabiltzeko, "zalantza eta bestelakoak" plazaratzeko.

Kudeaketari, kritikak

PSE-EEk eta EH Bilduk egitasmoarekin aurrera jarraitzearen alde bozkatu zuten, eta abstenitu egin ziren ELOP zein EAJ-PNV. Jeltzaleen erabakia alderdiko bozeramaile Jon Antxordokik azaldu zuen: "Gure iritzia aldatzea erabaki dugu, minduta sentitu baikara: ez zaigu gustatu alkateak nola erantzun dien ELOPeko kideei. Bestalde, adierazi behar dugu 2015-2019 legealdiko hauteskunde programan jaso genuela Atsobakarreko kirol proiektua, eta beti egin dugula lan horren alde. Gure iritziz, udal gobernuak ez zuen Usurbilgo Udalarekin negoziatzeko saiakerak sendorik egin 2018an, eta horrek atzerapena eta egitasmoaren garestitzea ekarri

ditu; bere jarrera lotsagarria izan da".

EH Bilduk eman zituen azalpenak ondoren; bozeramaile Jon Martinek hartu zuen hitza. "Baiezko bozka eman dugu uste dugulako herriarentzat funtsezko proiektua dela, baina ez dadila inor nahastu. Ez gara esaten ari udal gobernuak egin duen kudeaketa babesten ari garenik, ezta inondik ere, negargarri ari direla salatu nahi dugulako", nabarmendu zuen. Gogorarazi du 2016ko otsailan iragarri zuela egitasmoa aurrenekoz udal gobernuak, eta sei urte eta erdi geroago onartu duela esleipena korporazioak. "Denok dakigu lanak nekez hasiko direla 2023a baino lehen, eta, ondo bidean, hamabi hilabete luzatuko direla. Hortaz, ez lituzke bere funtzioak beteko 2024 erdialdera arte, gutxienez". Udalarentzat garestiago izatea ere salatu du Martinek: "Esleipena ez zen behar bezala egin hasieran, aurkeztutako txostenak ikerketa geotekniko bakar bat ere ez zuelako jaso, hasieratik izan ditu akats nabarmenak; orain ikusi dugu garestitu izanaren arrazoi nagusietako bat dela lurzoruan egin beharreko lan guztia".

Hil amaierara arte eskatu ahal izango dituzte diru laguntzak

Irailaren 31ra arteko epea dute enpresa berriak martxan jarri dituztenek laguntzak eskatzeko aukera

Txintxarri

Lasarte-Orian merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzu pertsonalen prestazioko enpresa berri bat sortu duten pertsona fisiko nahiz juridikoen eskatu ahal izango dute laguntza, betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Aurkezteko epea urriaren 31n amaituko dela jakinarazi du udalak.

Hiru diru laguntza lerro zehaztu dituzte (bakoitzak bere azpi atalak ditu). Lehen lerroko diru laguntzak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Bigarren dirulaguntza lerroa, berriz, lehen lerroan lortutako dirulaguntzarako osagarri bereziak izango da, eta hirugarren diru laguntza lerroak ekintzailatza sustatzea du helburu; Coworking espazio bat erabiltzeko laguntza da.

Euskararen erabilerari dagokionez, hau jasotzen da b e t e k i z u n g i s a : "Establezimenduaren errotulazio nagusiak, establezimenduaren izen bereziaz gain, garatu beharreko jardueraren berri ematen duen hitzen bat duenean, hitz hori, gutxienez, euskaraz jaso beharko da, eta haren grafiak ezin izango du beste hizkuntzei aplikatutakoa baino garrantzi txikiagoa edo nabarmenagoa izan." Hala, Sozioekonomia Sailak

onuradunari Euskara Sailarekin hitzordu bat hitzartzea proposatuko dio, establezimendurako zer zerbitzu eta laguntza jaso ditzakeen argi eta zuzenean jakiteko.

Banatu gabe utzitako laguntzak

Deialdian esleitutako kreditua nahikoa balitz aurkeztutako laguntzei erantzuteko, eman gabeko zenbatekoa banatu egingo dela iragarri du udalak. Eskatutako dirulaguntzen onuradun guztien artean egingo da banaketa, aurkeztutako eta onartutako guztizko gastuarekin proportzionala den banaketa prozedura jarraituz. Emandako dirulaguntzaren %20 emango zaie gehienez, eta ez da onartuko, inolaz ere, proiektuak neurritz gain finantzatzea.

Programa honetan aurreikusitako laguntza ezingo zaizkio diruz lagundutako gastu berengatik jasotako beste ezin laguntzari metatu. Gainera, negozioaren bideragarritasuneko programa bat aurkeztu beharko dute interesatuek. Informazio gehiago nahi duenak, TXINTXARRIren atari digitala kontsulta dezake, edo udaleko enplegudinamizatzailearekin jarri daiteke harremanetan, honako bide hauetan: 943- 37 61 79 telefono zenbakian, edota avila@lasarte-oria.eus helbidera idatzita.



LASARTE-ORIAKO UDALA

100 urte bete ditu Juana Icetak

Abuztuan zehar izan zen albiste pozgarririk Lasarte-Orian: Juana Iceta herritarrek 100 urte bete zituen, eta udalak ekitaldi xume baten bidez zoriondu zuen. Arroza sorta bat eta familia, lagun eta Atsobakar egoitzako gainerako egoiliarren mezuak eta maitasuna jaso zituen zorionduak.



Hilaren 2ko bileraren ostean, hamaiketakoak jan eta talde argazkia egin zuten partaideek. TXINTXARRI

GurasoLeku egitasmoa abian da aurten ere

Lasarte-Oriako Udala, Ttakun Kultur Elkarteak, Muntteri AEK euskaltegia eta herriko ikastetxeak zein guraso elkarteak ari dira GurasoLeku programan lanean, haurra ahalik eta hiztun osatuena egiteko helburuz. Izen emateak hilabete honetan zehar egingo dituzte

Txintxarri

Gure herriko haurrak ahalik eta hiztun osatuenak izatea da GurasoLeku egitasmoaren xede nagusia. Hiru adar ditu: GurasoLagun, GurasoLandia eta GurasoTegi. Proiektua aurrera eramateaz eragile ugari arduratzen dira, lan mahai batean elkartu ohi direnak kurtsoan zehar: Lasarte-Oriako udaleko Euskara Batzordea, Ttakun Kultur Elkarteak, Muntteri AEK euskaltegia, Sasoeta-Zumaburu eskola, Landaberri ikastola, Andrejoakinaenea haurreskola eta Burunzpe zein Landaberri guraso elkarteak. Hilaren 2an lan bilera bat egin zuten ikastetxeetako irakasleekin; programa hobeto ezagutzeaz gain,

nola hobetu aztertu zuten. Irakasleak dira gurasoak izena ematera animatzen dituztenak, familia bakoitzaren ezagutza maila kontuan izanda betiere.

Amaitu zutenean, eta hamaiketako ederra egin aurretik, saioan hitz egindakoen ondorioak bertso bilakatu eta partaideen aurrean abestu zituen Ane Labakak. Elkarrri agur esan aurretik, lan bilera parte hartu zuten ordezkariak elkarren alboan jarri eta talde argazkia atera zuten partaideek, 2022-2023 ikasturtea eta GurasoLeku martxan direla irudikatze.

Aurtengoan, irailean egingo dira izen emateak. Horretarako, eskuorriak banatuko dira herriko

ikastetxeetan, eta hilabete amaieran jasoko, lehen aipatu programei urrian ekiteko.



Ane Labaka, bertsoan. TXINTXARRI



Comillasen (Kantabria) izan zen Alboka Abesbatza, uztailean. ALBOKA ABESBATZA

Ikasturte berria prestatzen hasi da Alboka Abesbatza

Astean bitan elkartzen dira, Mirentxun, 20:00etatik 21:30era. "Beso zabalik" hartuko dituzte kide berriak

Txintxarri

Abuztuan zehar pilak kargatu eta gero, Alboka Abesbatzak iragarri du hasi dela ikasturte berria prestatzen: astelehen eta ostegunetan egingo ditu saioak, Mirentxun, 20:00etatik 21:30era. Kideek nabarmendu dute "beso zabalik" hartuko dituztela taldera batu eta haien lana gertutik ezagutu nahi duten herritarrek.

Ohi bezala, Albokak makina bat kontzertu emango ditu urtean zehar. Azpimarratzekoa da Zero Sette Akordeoi Orkestra eta Erketz EDTrekin batera egingo duena, Euskararen 10. Maratoialdiaren barruan, edo Soriako nahiz Comillaseko (Kantabria) Brumas Norteñas abesbatzei egingo dizkien harrera ekitaldiak.

Santxikorrota lasterketan parte hartzeko deia

Nafarroa hegoaldean euskara sustatzeko asmoz, Agerraldia elkarteak Santxikorrota mendi lasterketa herrikoia egingo du urriaren 2an, igandez, Bardeetan. Bi ibilbide izango dituzte partaideek aukeran, laburra edo luzea, 10 edo 21 kilometrokoa.

11:00etan hasiko da. Lasarteoriatar talde batek jakinarazi duenez, herriko zenbait lasterkerik izena eman dute honezkero, eta Errigora egitasmoan lanean dabiltzan kide batzuk ere joango dira. Agerraldia elkartearen egitasmoaren berri eman dute, jende gehiago anima dadin. Izena emateko: <https://inscripcion.kirolprobak.com/inscripcion/santxikorrota-herri-lasterketa/>.

GURASO LEKU
Familiaren hizkuntza-politika

0, 1^{eta} 2^{urteko} haurren gurasoentzako eskaintza

GurasoLagun

2, 3, 4^{eta} 5^{urteko} haurren gurasoentzako eskaintza

GurasoLandia

GurasoTegi

IZEN EMATEA ZABALIK
ESKUORRIA HERRIKO IKASTETXEETAN



IRAILAREN 12AN 19:30EAN ORIARTEN KORUKO KIDE IZAN NAHI BADUZU DEITU 616 43 21 69 TELEFONORA



Extremadura Etxeko zuzendaritzako eta kultur batzordeko kideak, prentsaurrean, aurtengo egitaraua iragarri zutenean. TXINTXARRI

Jai giroa dakarte, asteburura bitarte

Ospakizun betean da herriko Extremadura Etxea. Ama Guadalupekoaren omenezko jaiak ospatuko dituzte asteburua bitarte, aurten, gainera, berrikuntzekin. Herritarrak deitu dituzte antolatzaileek, iragarri dituzten jardueretan parte hartzera anima daitezen

Txintxarri

Hiru urteko etenaldiaren ostean, bueltatu dira Ama Guadalupekoaren omenezko jaiak. Egitarau zabal bezain erakargarria prestatu du Extremadura Etxeak, eta ospakizun bete-betean dira bertako bazkide, erabiltzaile eta herritarrak.

Atzo hasi ziren festak, hilaren 7an. Gozogintza tailerra egin

zuten, eta elkarteko bazkide eta lagunaren arteko topa eta luntxa gero. 20:00etan eman zioten hasiera festari, txupina jaurtiz eta bandera igoz.

Pozik eta gogotsu aurkeztu zuten zuzendaritza taldeko zein kultur batzordeko kideek aurtengo egitaraua, eta, horrekin batera berrikuntzen berri eman zuten. Hilaren 7tik 11ra izango dira

aurten jaiak. Hori hala izanik, jai egun gehiago izango ditu aurtengo egitarauak (aurreko urteetan asteburura soilik mugatu izan dituzte). Horrez gain, lehen aldiz jantzi tradizionalen desfilea egingo dutela iragarri zuten, eta zezensuzkoa ere ibiliko da herriko gaztetxoak harrapatu nahian. Herritarrei dei egin

Biltegiko produktuen eskaintza egin dute herriko komertzioek

Stock Azokaren edizio berri batekin hasi du Aterpea merkatarien elkarteak ikasturte berria

Txintxarri

Hil hasieran egin du Aterpea merkatarien elkarteak aurtengo Stock Azoka. Hamazazpi dende parte hartu dute, eta denboraldiko produktuen soberakinak eskaini dizkiete

lasarteoriarrei. Hauek izan dira edizio berri horretako parte hartzaileak: Mabel moda, Ines Flores artisautza, Imagine jantzi denda, Nahio arropa denda, Urruzola mertzeria, Leder oinetakoak, Noaoa

bidaiak, Kaizen altzariak eta dekorazioa, Ana gizezkoen ileapaindegia, Olmi mertzeria, Bote Tattoo, Deco 75 textil hogar, Mauxa mertzeria, Alba moda, Iturbe zapata denda, Dulce Tentacion eta Arregui elektrizitatea.

Antolatzaileek adierazi zuten kanpaina horren asmoa ez zela azokarako bereziki erositako produktuak saltzea, gordetako produktua salgai jartzea baizik eta halaxe egin dute.



Aurtengo Stock Azokan parte hartu du Nahio jantzi denda. TXINTXARRI

Datozen egunetako jaien egitaraua

Irailak 8, osteguna - Adarra kolean

- 18:00etan, haur jolasak.
- 18:45etan, txokolate jana.
- 19:00etan, topa eta agurra.
- 19:15etan, jantzi tradizionalen desfilea.
- 19:30etan, pintxopotea.
- 19:45etan, Dinbi Banda batukada taldearen emanaldia.

Irailak 9, ostirala - Jaizkibel plazan

- 11:30etan, stand irekiera, hamaiketako eta topaketa.
- 12:00, Oaintxe in deu txaranga eta Tapacaña.
- 14:30etan, paella herrikoia.
- 16:00etan, mus txapelketa.
- 17:00etan, karaokea.
- 19:00, bakarriketa: Paula Letizi.
- 22:30etan, DJ Karpin.

Irailak 10, larunbata - Extremadura Etxean

- 11:30etan, Extremadurako meza Extremadura Etxean.
- 12:00etan, buruhandien kalejira, Oaintxe in deu txarangarekin.
- 13:00etan, Duende, Gitanillas eta Zambra andaluziako taldeen emanaldia.

- 13:00etan, bermuta.
- 14:30etan, arkume gisatua, Extremadurako erara.
- 16:00etan, futbolen txapelketa kooperatiboa, Jalgune elkartearekin.
- 16:00etan, tute txapelketa.
- 17:00etan, herri kirolak.
- 19:00etan, Donostiako Virgen de Guadalupe taldearen emanaldia.
- 21:00etan, bazkide afaria.
- 23:00etan, zezensuzkoa.
- 23:30etan, dantzaldia Ibai Berriak taldearekin.

Irailak 11, igandea - Jaizkibel plazan

- 10:30etan, marrazki lehiaketa (2KN kafetegian).
- 11:30etan, haurrentzako jolas eta tailerrak.
- 12:00etan, ginkana.
- 13:00etan, buruhandiak.
- 14:00etan, herri bazkaria.
- 16:00etan, karta txapelketako finalak.
- 17:00etan, bolo lehiaketa 18 urtetik gorakoentzat.
- 19:00etan, sari banaketa.
- 20:00etan, jaien amaiera eta bandera jaitziera.

zieten antolatutako jardueretan parte hartzera anima daitezen.

Udal ordezkariak ere presente egon ziren aurkezpen ekitaldian, eta Hezkuntza saileko zinegotzi Maite Iglesiasek hartu zuen hitza. Eskertuta agertu zen elkartearekin, eta goraitatu zuen urtez urte euren ohiturak eta ospakizunak ezagutarazteko egiten duten lana. Extremadura Etxeko kideek azpimarratu dute, herriko hainbat elkarteekin inoizko elkarlanik

handiena izan dutela aurtengo jaiak antolatzeko. Adibidez, aipatu dute Zabaleta Auzolan elkarteak utzitako txosna erabiliko dutela, eta zezensuzkoaren ardurak LOZET elkartearena izango da. Modu berean gogoratu dituzte aurtengo jaietan parte hartuko duten gainerako eragileak ere (Jalgune, Dinbi Banda batukada taldea, Semblante Andaluz, Gitanillas, Zambra, Duende eta gainerako boluntarioak).

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2022-23



ONDO iBiLi!

BEKA
matrikularen
arte %85a

ABIAPUNTUA

Zu zeu eta zure errealitate linguistikoa.

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
 - Maila guztiak.
 - Ordutegi zabala.
 - Txandaka aritzeko aukera...
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Bekokale bidea 1
- Telefonoa: 943-36 16 21
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 20ra

Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 607 62 52 33
- e-maila: lasarte@eak.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 28ra

Bidaia ezazu zuzenean herriko agentzia batekin, ziurtasun osoz.

GELDIALDIAK

- Haurrekin hitz egitea...
- Gauza laburrak idaztea...
- Titulu bat eskuratzea: B1, B2, C1, C2
- Lagunekin, lankideekin, familiakoekin euskaraz aritzea...
- Euskarazko kultura, esperientziak, jarduerak hobeto ulertzea, parte hartzea, parte izatea...



ONDO iBiLi!

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egin izatea:
 - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gaititua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.




Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943-37 61 84
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus





Kirol hau halterofilia omen da. Horrez gain, ba al dakizu zein den pisu-jasotzailearen itzal zuzena?


Itzalak



Kolorezta ezazu zure gustura.

Hara! Jauzi batetik bestera lau gauza galdu ditu Maripurtzilek. Gainera, elementu berri bat agertu da. Ikusten al dituzu?

Jauziak




Zenbat?

Etxeko patata-tortillarik onenak Pellozirik egiten ditu. Hiru patata, lau arrautza, olioa, gatza eta tipula behar ditu tortilla bakoitzeko.

Hemen dauzkan gaien arabera, zenbat tortilla aterako zaizkio?





1 Puzzle-zati hauetatik zortzik irudia osatuko lukete baina beste laurak engainagarriak dira, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.

Puzzlea

Ui, ene, hau da parea... Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta hiru esamolde azalduko zaizkizu.

Zeeer?!

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?



Erraztasunak eta dirulaguntza potoloak, euskara ikasteko erronkari heltzeko

Ikasturte berriarekin batera, euskaltegietara joko dute eskualdeko herritar askok, euskara ikasteko zein berreskuratzeko, hizkuntza maila hobetzeko, agiriren bat lortzeko... Eta saiakera horretan, bidelagun izango dituzte Buruntzaldeko sei udalak ere, matrikularen kostu osoa edo zati handiena lagunduko baitiete diruz. HABEk ere emango ditu dirulaguntzak, horretarako.

BURUNTZALDEA EUSKARA

Hemen da ikasturte berria, eta oporraldian pilak kargatuta, iritsi da urteroko ohitura onak berreskuratzeko garaia ere. Horietako bat, askorentzat, izaten da euskaltegira hutsik egin gabe joatea, euskara ikasteko zein berreskuratzeko, hizkuntza maila hobetzeko, edota egunerokoan zein lan munduan aukera berriak zabalduko dizkieten ezagutza eta agiriak lortzeko.

Helburua edozein dela ere, bere neurrira egindako aukerarik ez dute faltako Buruntzaldeko herritarrek, beste urte batez, eskualdean bertan: udal euskaltegiek zein AEK euskaltegiek, maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza daukate aukeran, egun eta ordutegi ezberdinetan.

Eta euskaltegiek erraztasunak ematen badituzte euskara ikasi edo indartzeko, are gehiago errazten dute eskualdeko sei udalek, horretara bideratutako dirulaguntzekin, euskararen erabilera normalizatu eta

helduen alfabetatze eta euskalduntzea sustatzeko bidean.

Ikasturtean zehar euskara ikasteko, oso potoloak dira eskaintzen dituzten dirulaguntzak. Kasurik apalenetan, matrikularen %70a laguntzen dute diruz; baina oro har, hortik gorakoak dira dirulaguntzak, baita %100ekoak ere, kasu askotan. Baldintzak, berriz, ez dira zorrotzak: nahikoa da udalerrian erroldatuta egotea, 16 urtetik gorakoa izatea, eta asistentzia minimo bat betetzea (%80-85ekoa).

HABEren dirulaguntzak

Buruntzaldeko sei udalek eskaintako dirulaguntzez gain, HABEk (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) ematen dituenak ere eskuragarri daude.

Kasu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden guztiek egin dezakete eskaera, baldin eta aurreko ikasturtean gainditu bazuten HABEren ikastaro edo mailetakoa bat, homologatutako



Buruntzaldeko euskaltegietako kideak eta udaletako euskara zerbitzuen ordezkariak, bat eginda, Lasarte-Orian. TXINTXARRI

euskaltegi batean zein autoikaskuntzarako zentro batean, edota HABEren egiaztatze-deialdietan agiria eskuratuta.

Gainditu edo egiaztatu duen maila bakoitzeko, ikasleak eskuratu dezake 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetako

matrikuletan ordaindutako kopurua, gehieneko muga hauekin, mailaren arabera: A1 mailan, 600 euro; A2 mailan, 800 euro; B1 mailan, 900 euro; B2 mailan, 1000 euro; C1 mailan, 700 euro 1992an edo ondoren jaiotakoentzat, eta 150 euro 1991n

edo aurretik jaiotakoentzat; eta C2 mailan, 100 euro.

Kasu batzuetan, HABEren dirulaguntza ez da udalek emandakoekin bateragarria; eta gai-nerakoetan, bi dirulaguntzen baturak ezingo du matrikularen kopuru osoa gainditu.

Baldintzak eta laguntzak

Andoain

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Andoain erroldatuta egotea (sei hilabete lehenagotik), eta %85eko asistentzia. Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere, baina %100a ere izan daiteke kasu batzuetan (diru-sarrera mugatuak, familia ugariak, merkatariak, gurasoak, entrenatzaileak, atzeritarrak, begiraleak...). Barnetegietan, ostatu gastuen %50a gehienez ere.

Astigarraga

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Astigarragan erroldatuta egotea (adin txikikoen kasuan, gurasoetako bat behintzat hala egotea), %85eko asistentzia edo ikasturtean gutxienez urrats bat gainditzea, eta egin beharreko ebaluazio probak egitea. Dirulaguntzak: matrikularen %100a, oinarritzko errenta jasotzen dutenek, Udalaren larrialdi laguntza jasotzen dutenek, 0-12 urte bitarteko haurren gurasoek, familia ugariako kideek, unibertsitateko edo lanbide heziketako ikasleek, merkatariak, eta azken hiru urteetan hiru maila

gainditu dituztenek. Gainerakoek, matrikularen %75a. Gehienez ere 743 euro.

Hernani

Baldintzak: Hernanin erroldatuta egotea, eta %85eko asistentzia. Dirulaguntzak: astean 10 ordu baino luzeagoak diren ikastaroetan, matrikularen %100a langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasunen bat dutenei; gainerakoek, matrikularen %75a. Astean 10 ordu edo laburragoak diren ikastaroetan, matrikularen %90a langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasunen bat dutenei; gainerakoek, matrikularen %70a. Barnetegietan, matrikularen %100a langabetuei, ikasleei, erretiratuei edo desgaitasunen bat dutenei; gainerakoek, matrikularen %75a (ostatu gastuak norberaren kontura).

Lasarte-Oria

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Lasarte-Orian erroldatuta egotea (ikastaroak irauten duen epe osoan), %85eko asistentzia eta gutxienezko aprobetxamendua gainditzea, eta ikastaro hauetakoren bat egina izatea: euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa (gutxienez 80

ordu), barnetegia (gutxienez hilabete segidan), edo udako ikastaroa.

Dirulaguntzak: matrikularen %85a gehienez ere.

Urnieta

Baldintzak: Urnietan erroldatuta egotea, %80ko asistentzia eta aprobetxamendu ona izatea. Dirulaguntzak: matrikularen %100a gehienez ere langabetuentzat, eta %85a gehienez ere lanean ari direnentzat. Eskatzaile bakoitzeko, ikasturteko 600 eurokoa izango da laguntzaren muga, eta udako ikastaroetan 200 eurokoa. Barnetegiko ikastaroetan, matrikula gastuak bakarrik lagunduko dira diruz.

Usurbil

Baldintzak: 16 urtetik gorakoa izatea, Usurbilen erroldatuta egotea, %80ko asistentzia, eta gutxienezko aprobetxamendua gainditzea. Ikastaroak iraun bitartean erroldan alta edo baja emanaz gero, ikasturtean zehar erroldatuta egon den denboraren proportzioan jasoko da dirulaguntza. Dirulaguntzak: matrikularen %100a, 600 euroko mugarekin. Eskaera kopuruak dirulaguntzetarako aurreikusitako partida gaindituz gero, proportzionalki murriztuko dira dirulaguntzak.

Buruntzaldeko udalek %70 - %100 artean diruz laguntzen dute euskara ikastea!



Usurbil



Andoain

Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga

**Eus
ka
ra
ikasiz**
Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili



Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!

buruntzaldea.eus

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
andoain@aek.eus
943-59 17 04

LASARTE-ORIA

Munterri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea 17 Behea
607 62 52 33
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi 11
943-55 78 01 607 59 28 64
Zilegi eskola: 663 04 33 14
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia 43, Behea
607 60 93 79
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia 48
607 61 06 87
astigarraga@aek.eus

Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia

Bekokale bidea, 1
(anbulatorioaren gainean)
943-36 16 21
euskaltegia@lasarte-oria.eus

Hernaniko Udal Euskaltegia

Karobieta 63
(anbulatorio zaharra)
euskaltegi@hernani.eus
943-33 18 96

URNIETA

Urnietako AEK
Errekalde kalea, 1
662 33 87 47
urnieta@aek.eus

Herritarrak ohorezko txandan lehiatuko dira

Lehia bizia egon da Kontxako Banderaren lehen jardunaldian. Orio Orialkik egin du denborarik onena eta Donostia Arraun Lagunak bigarren izan da bi segundotara. Hondarribia Bertako Igogailuak-ek lehen txanda irabazi eta hirugarren sailkatu da

Txintxarri

Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako Igogailuak ohorezko txandan izango dira nor baino nor, hilaren 11n. Beraz, Aiora Belartietia eta Intza Fernandez herritarrek Kontxako Bandera eskuratzeko lehiatuko dira. Belartietia kide duen Donostia Arraun Lagunak-ek ditu aukera gehiago; sailkatze proban irabazle izan zen eta iazko garaipena errepikatu nahi du Donostiako eskifaiak. Lehen jardunaldiaren ostean sailkapen buru den Orio Orialkik, ordea, ez erraztasunik emango.

Hilaren 4an, Kontxako Banderaren lehen jardunaldia jokatu zen Donostiako Badian. Euskotren Ligako ontziak zein ETEko eta Galiziako Ligako lehen biek parte hartu zuten bi txanda ezberdinetan banatuta. Lehia bizia egon zen bi estropadetan.

Lehenengoan, Intza Fernandez herritarra Hondarribiako tostan izan zen eta Hibaika, Tolosaldea eta Cabo eskifaiekin batera ohorezko txandan lekua lortzeko



Donostia Arraun Lagunak-ek eta Orio Orialkik lehia bizia izan zuten. IRUTXULO KO HITZA

lehiatu zen Ama Guadalupekoa. Lehia baino lehen Fernandezek onartu modura, "helburua ahalik eta bertsiorik onena ematea da eta, posible bada, irabaztea. Ohorezko txandan sartzea gustatuko litzaiguke".

Lehen kaletik jardun zen talde berdea eta Tolosaldearekin borroka ederra izan zuen. Badiatik ateratzerakoan bi

ontziak aurretik jarri ziren eta ziabogan urdinek hiru segundoko alde lortu zuten. Alabaina, Ama Guadalupekoak badiaren sartzekoan erritmoa bizitu eta egoerari itzulia eman zion. Helmugan garaile izan zen, 10.50,47, eta Tolosaldea bi segundo eta 36 ehunetokora iritsi zen.

Bigarren txanda geratzen zen, ordea. Horretan, Aiora Belartietia

herritarrak eta Donostia Arraun Lagunak-ek Orio Orialki, Donostiarra Ur Kirolak eta Chapelaren aurka neurtu zituzten indarrak.

Bigarren helmugan

Sailkatze proban lehen postua lortu ostean, Ligako zalantza guztiak alde batera utzita egin zion aurre lehen jardunaldiari Lugañeneko eskifaiak, Belartietaren hitzetan: "Estropada txukun bat egitera atera gara. Badakigu borroka handia egongo dela Orio eta gure artean, beraz, bigarren iganderate ez da ezer erabakiko".

Eta herritarrak iragarri modura, hala izan zen. Lehen metroetatik, Donostia Arraun Lagunak eta Orio Orialki probako buruan egon ziren; ziabogan mirotzak izan ziren azkarrenak, 5.25; segundo bat gehiago behar izan zuten donostiarrek. Garailea ez zegoen argi, parez pare jarri baitziren berriz ere bi ontziak bigarren luzean. Azken metroetan, ordea, San Nikolaseko eskifaia ongi baliatu zen olatuez. Metro batzuetako tartea egin eta lehen jardunaldiko irabazle izan zen, 10.37,52. Lugañene, berriz, bigarren izan zen 10.39,68 denborarekin.

Lehen txandan lehiatutako Hondarribia Bertako Igogailuak gainerako bi ontziak iristeko zain zegoen. Ziabogan berdeek baino denbora kaxkarragoa egin zuten bai donostiarrek, baita galziarrek ere. Helmugan Donostiarra Ur Kirolak-ek 10.50,82ko denbora egin zuen eta Chapelak, 11.15,18koa.

Denbora horiek kontuan izanik, Ama Guadalupekoak jardunaldiko hirugarren postuan amaitu zuen jardunaldia eta ohorezko txandarako txartela eskuratu zuen. Helburua bete zuten berdeek.

Era honetara, hilaren 11n, 11:00etan, bi herritarren ontziak izango dira Kontxako Banderako ohorezko txandan lehian. Donostia Arraun Lagunak-ek bandera etxean geratzea izango du helburu; Hondarribiatarrek, berriz, euren balioa erakutsi nahi dute.

Sailkapenetik kanpo

Bestalde, Donostiako proba handiko sailkapen proban izan zen Gaizka Ormazabal herritarra ere. Abuztuaren 31n, gizonezkoen 24 ontzi lehiatu ziren Kontxako Badiako lehian parte hartzea ziurtatzen zuten zazpi postuak eskuratzeko eta Ormazabal kide duen Hibaika izan zen horietako bat. B multzoan zegoenez, 23. postuan lehiatu zen Errenteriako ontzia. Ziabogan 11.19 eta helmugan 21.56,19 egin zuen. Ormazabalen hitzetan, "ez zen gure estropadarik onena izan; emaitza, ordea, ez zen guztiz txarra izan".

Denbora horrekin lehen postuetatik urrun geratu zen eta ez du bandera jokatzetik izango. Hala ere, herritarrak azaldutakoaren arabera, euren helburua ez zen lehiaketarako sailkatzea: "Gure kasuan ezin gara zazpi postu horien lehian ibili. Helburua estropada ona egin eta batez ere, egun berezi hortaz disfrutatzea izan da".

EUSKOTREN LIGA

Donostia Arraun Lagunak-ek bigarren postua eskuratu du

Ligatik kanpo kendu du arantza Donostiako taldeak eta Euskadiko txapelketa eskuratu du

Txintxarri

Euskotren Liga bigarren postuan amaitu du Donostia Arraun Lagunak-ek. Lugañeneko eskifaiak, Aiora Belartietia herritarra barne, ezin izan du iazko garaipena berretsi. Denboraldi hasieran, IV. Bilboko Bandera eta A Coruña Hiriko Banderako bigarren jardunaldia irabazi ostean, mirotzek baino bandera gehiago eskuratzeko xede zutela adierazi

du herritarrak. Alabaina, aurkari latza izan dutela ere onartu du, ezinegona: "Urduritasunak ez digu aurrera egiten utzi".

Orio Orialki, ordea, indartsu jardun da denboraldi osoan zehar eta Belartietia herritarrak esan moduan, Donostiako ontzia "ez da bere errendimenduaz ongi baliatu". Horrek amorru handia eman diela ere aitortu du. Dena den, Donostia Arraun Lagunak-ek

"inoiz amore eman ez" duela ere gehitu du.

Ligatik kanpo, berriz, arantza kendu du Donostiako ontziak. Euskadiko txapeldun izan zen eta Gipuzkoako txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen.

"Euskadiko txapelketa ospatu baino lehenago zenbait estropada jokatu genituen, baina ez ginen oso gustora gelditu. Euskadiko txapelketa irabazteak indar handia eman zigun aurrera jarraitzeko eta berriz ere konfiantza hori hartzeko", adierazi du.

Kontxako Bandera du orain buruan herritarrak. Bertan hurrengo denboraldian Euskotren Ligan izango diren zortzi ontziak ari dira lehian. Bi jardunaldiak



Donostia Arraun Lagunak, Euskadiko txapelketako banderarekin. DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

"traineru bakoitza non dagoen kokatzeko" baliagarri izan daitekeela onartu du. Hala ere, urte batetik bestera batzuetan taldeetan gauzak "asko" aldatzen

direla eta horrek errendimenduan eragin dezakeela atxiki du. Beraz, aditzera eman du datorren denboraldiari begira ezin dela ezer aurreratuko.

ETE LIGA



Hondarribia Bertako Igogailuak, Camargoko Banderarekin. INTZA FERNANDEZ

Hondarribia Euskotren Ligan lehiatuko da berriz ere

Ama Guadalupekoak 2022ko ETE Liga irabazi du eta ez du igoerarik jokatu behar izan

Txintxarri

Hondarribia Bertako Igogailuak-ek ETE Liga liga irabazi du eta Euskotren Ligako ontzia da. Pozarren daude taldeko kideak, baita Intza Fernandez herritarra ere. "Gure lehenengo helburua igoera saihestea eta Euskotrenera zuzenean sartzea zen, eta bigarrena, ahal izanez gero, liga irabaztea. Eta azkenean gauzak

ondo eginda bi helburuak lortu ditugu", adierazi du.

Denboraldian zehar, Ama Guadalupekoak Deusto eta Hibaika izan ditu aurkari: "Hasieratik genekien parean izango genituela baina gure buruarengan konfiantza izan dugu eta gauzak ondo atera zaizkigu. Deustori tarte handiagoa atera genion denboraldi

KAE 2 LIGA

Azken estropadetan ihes egin dio igoerak Hibaikari

Mutrikurekin berdinduta amaitu arren, sailkapen orokorreko laugarren postua eskuratu du

Txintxarri

Hibaikak eta Gaizka Ormazabal herritarrak KAE 2 mailako laugarren amaitu dute denboraldia. Lehiaketa osoan zehar hirugarren postuan egon arren, azken estropadetan eskuetatik ihes egin die igoerako lehiak. Lapurdi izan da garaile eta Donostiarra Ur Kirolak bigarren.

Neguko lehiatan lapurtarrak "beste taldeak baino koska bat gorago" zeudela aipatu du Ormazabalek. Nahiz eta liga aurrera joan ahala emaitzak asko estutu, ligako garaile nabarmenak izan direla onesten du herritarrak.



Hibaikako eskifaia, Erreterriako Banderan lehian. HIBAIIKA

Hibaikak, aldiz, "urteko helburu nagusia KAE 2 ligako lehenengo hiru postuetan sailkatu eta igoerako probarako txartel bat lortzea zuen", adierazi du eskifaiaiko herritarrak.

erdialdera eta beraz, Hibaikarekin eduki dugu borroka handiena".

Sailkapeneko lehen bi postuetan egon ahal zirela ikusita buru mantentzeko "ahalik eta estropada gehien irabaztera joan gara", onartu du herritarrak. Ane Aizpuru2. Oroimenezko estropadan izan ezik, bandera etxera eraman dute hondarribitarrek.

Garaikurrez bete dute aurtengo arasa. Horietako bi bereziak izan direla onartu du: "Txingudiko Bandera izan da bereziarena taldearentzat; lehenengo aldiz lortu dugu etxeko bandera irabaztea. Baina niretzako Portugaletekoa izan da onena. Bi jardunalditara jokatzeko zen. Lehen jardunaldian hirugarren postuan geratu eta igandean buelta eman eta segundoak errekupeatzea lortu genuen. Sekulakoa izan zen".

Ligaz gain, Euskadiko txapelketan hirugarren postuan sailkatu ziren berdeak: "Gogoa genuen Euskotreneko traineruen aurka lehiatzeko. Estropada ona egitea espero genuen, baina ez posturik lortzea. Esan behar da Lekeition alde handia dagoela kale batetik bestera eta txanda batetik bestera ere baldintzak aldatu zirela, beraz edozer pasa zitekeen".

Liga osoan hirugarren postuan nahiko finko egon arren, taldeak "kolpe latza" jaso zuen hirugarren postua azken estropadan galtzean. Gakoa, bereziki, azken bi jardunaldietan egon zela onartu du herritarrak: "Santoñan eta Castron ez genuen gure maila eman eta Mutrikuk saio onak egin zituen".

Ondorioz, sailkapen orokorrean puntu berberak eskuratu dituzte bai Mutrikuk, baita Hibaikak ere. Alabaina, Ormazabalek azaldu modura, "Mutrikuk Ondarroako bandera irabazi zenez, eurek lortu zuten igoera jokatzeke azken txartela".

Hibaikak, berriz, ez du garaipenik lortu denboraldian zehar. Bigarren izan da Donostia zein Erreterian jokatutako jardunaldietan. Azken hori hunkigarria izan zela aitortu du Ormazabalek: "Jende dexente jeitsi zen Oiartzun ibaira taldea animatzera eta taldeak oso lan ona egin zuen".



Manso, eskuineko lehena, V. Jatako igoerako podiumean. BIZKAIKO AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA

Aitor Manso hirugarren izan da V. Jatako igoeran

Herritarrak zortzigarren mailako lehen postua ere eskuratu du Mendi Igoeretako azken aurreko proban

Txintxarri

Euskadiko Mendi Igoeren denboraldia amaitzeko da. Hilaren 18an, Jaizkibelgo igoera jokatuko da eta gidariek agur esango diote aurtengo lehiari. Bien bitartean, Aitor Manso podiumean izan da beste behin. Oraingoan V. Jatako igoeran eserleku bakarreko sailkapenean hirugarren postua eskuratu du herritarrak; zortzigarren mailan, berriz, garaile izan da. Mansoz gain, Alejandro Lopez herritarrak ere parte hartu du proban.

Hilaren 3an, Bakion lehiatu zen lehiaketan 35 ibilgailu bildu ziren. Guztien artean azkarrena Joseba Iraola izan zen bere Norma NP01 ibilgailuarekin;

1.45,677 denbora eginez, probako errekor berria ezarri zuen.

Aitor Manso herritarrak BRC B49 ibilgailua gidatu zuen eta entrenamenduetan egindako denborak hobetu zituen bi proba kronometratuetan; azkenekoan egin zuen markarik onena, 02.03,501. Tamalez, ezin izan zen bi lehen postuak eskuratu zituzten Iraolaren eta Pablo Vazquezen (biak bederatzigarren mailako ibilgailuak) denboretatik gertu egon.

Bestalde, Alejandro Lopez BMW 316i ibilgailuarekin hirugarren mailan lehiatu zen. Azken eremu kronometratuan 02.14,741 denbora egin eta bere mailako hirugarren amaitu zuen lehiaketa.

Arteaga II.ak ez du Baiko Pilota enpresan jarraituko

Hilaren 17an, 20:00etan, herritarrak agurreko partida jokatuko du Michelin kirol gunean

Txintxarri

Hilaren 17an, Axier Arteaga, Arteaga II.ak agur esango dio Baikoko pilotari izateari. Abuztuaren 10ean enpresak jakinarazi zuen ez zuela herritarraren kontratua berrituko; Arteagak 2020ean bi urteko kontratua sinatu zuen.

Argitaratutako oharrean, bere profesionaltasuna eskertu eta etorkizunean ongi joatea opa diote Lasarte-Oriako pilotariari.

Arteaga II.ak 2016ko urtarrilean egin zuen debuta Tolosako Beotibar pilotalekuan. Promozio

mailako txapelkun izan da bai buruz buru (2017 eta 2020 urteak), baita bikoteka ere (2017. urtean, Erasunekin batera).

Etxean agurra

Hilaren 17an, Baiko enpresak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, Axier Arteagak agur partida jokatuko du Michelin kirol gunean. Hitzordua 20:00etan hasiko da eta Aranguren lagun, Artola eta Aretxabaleta bikotea izango dute aurkari.

Sarrerak salgai daude dagoeneko Baikoren orrialdean.

Realak Euskal Herria Kopa eskuratu du

Real Sociedad taldeak 4-1 garaitu du Alaves. Denboraldiaurrea amaituta, hilaren 10ean, talde txuri-urdinak Atletico Madrilen aurka hasiko du Espainiako Lehen Mailako Liga. Irati Urruzola herritarra, berriz, Osasunarekin lehiatuko da RFEF lehen mailan

Txintxarri

Iraia Iparragirre herritarrak eta Real Sociedad taldeak berriz ere Euskal Herria Kopa altxa dute. Talde txuri-urdinak 2020an eskuratu zuen azkenezko garaikur hori eta iaz ezin izan zuen finalera iritsi. Aurten, ordea, ederki kendu du arantza. Abuztuaren 13an, Athletic Club 3-1 garaitu zuen Tolosako finalerdian, eta 4-1 irabazi Alavesen aurkako finala, hilaren 4an.

Nahiz eta emaitza desorekatua izan, Azkoitiako Txerloia zelaian jokatu zen lehia berdindua izan zen. Lehen zatian, gol aukera askorik ez zuten sortu taldeek. Hala ere, 12. minutuan, markagailuan aurreratu zen Real, Synne Jensen-en golari esker.

Alavesek ez zuen amore eman, ordea, eta hiru minututara, Carla Armengolek partida berdindu zuen. 35. minutuan, bigarrena sartzeko aukera ere izan zuten babazorroek. Realak, berriz, buruz sortu zuen arriskua Jensenen eskutik.

Banako berdinketarekin hasi zen bigarren zatia. Realak kopa irabazteko gogoz zegoela erakutsi zuen hasi bezain laster. Gabyk atera egindako jaurtiketa batek langan jo zuen.



Realeko jokalaria, Euskal Herria koparekin. MAILLO OIARZABAL/UKT

66. minutura arte itxaron behar izan zuten, ordea. Jensenek donostiarren bigarren gola egin zuen eta neurketako azken minutuetan, Maddi Torrek eta Elene Vilesek hirugarren eta laugarren gola egin zituzten, hurrenez hurren. Iraia Iparragirre herritarra hamaikakoan izan zen eta bigarren zatiko 68. minutuan utzi zuen zelaia.

Denboraldiaurreari era ezin hobean eman dio Natalia Arroyoren taldeak. Ligari egingo dio orain aurre Donostiako taldeak. Lehen jardunaldia hilaren 10ean jokatuko du Atletico Madrilen aurka, Madrilen. Eta Bayern Munich izango du aurkari

etxean Txapeldunen Ligako joaneko neurketan, hilaren 20an, 19:00etan.

Talde aldaketa

Bestalde, Alaves taldean zegoen Irati Urruzola Urru herritarrak Gasteiz utzi eta 2022-2023 denboraldian, Osasuna taldearen atzealdea indartuko du. Talde gorriak Taxoaren, Iruñean emango dio hasiera RFEF Lehen Mailako denboraldiari hilaren 10ean; Cordobaren aurka neurtuko ditu indarrak. Horren ostean, Erreginaren Kopako kanporaketa jokatuko du hilaren 13, 14 edo 15ean, etxean, eta AEM taldeari egingo dio aurre.

Maialen Chourraut, sailkapeneko lehen postuetan

Abuztuan Eslalom eta Eslalom Extreme modalitateko Espainiako txapelketak irabazi ditu

Txintxarri

2023 urtea, Pariseko Olinpiar Jokoetako sailkatze urtea jomugan du Maialen Chourraut herritarrak eta herritarra bide onetik doala dirudi. Otsailean sorbaldako ebakuntza izan ostean, lasarteoriatarra probaz proba doa bere prestaketa findu

nahian. Lehiatutako proba gehienetan finaletara iritsi eta lehen hamarren artean izan da.

Uztailean Munduko txapelketan eman zion hasiera denboraldiari Augsburgen, Alemanian. Ezusteko ederra eman zuen herriko palistak eslalom mailako lehiaketako finalera iritsi eta

bosgarren postua eskuratzean. Eslalom extreme mailan ere parte hartu zuen Chourrautek eta bederatzigarren izan zen.

Abuztuan, berriz, Espainiako txapelketari eta Pauen antolatu zen Munduko Kopako probari egin zion aurre olinpiar jokalaria.

Abuztuaren 19an eta 21ean, Eslalom eta Eslalom Extreme mailtan Espainiako txapeldun izendatu zen herritarra nagusitasunez Sabero-Alejiko kanalean, Leonen.

Hil horren amaieran, Pauen, bigarren aukeran final erdirako



EUSKAL JUDO FEDERAZIOA

LOKEko judokak lanean dira

LOKEko judoek hilaren 5ean hasi dituzte 2022-2023 denboraldia prestatzeko entrenamenduak, Maialen Chourraut kiroldegiko tatamian. Gorka Aristegi entrenatzaileak jakitera eman duenez, 2016 urtetik gorako gazte eta helduek egunero egingo dute saioa, 19:30etik aurrera; eskola mailako haur eta gaztetxoek, berriz, astean hiru egunetan (astelehena, astezkena eta ostirala), 18:30etik 19:30era. Hala ere, taldeko hainbat kide zein prestatzailea (ikus goiko argazkia) lanean hasiak ziren; Euskal Judo Federazioak antolatutako entrenamendu saioetan parte hartu zuten hilaren 1etik 3ra, Zarautzen. Estatu osoko 200 bat judoka batu ziren hiru eguneko egonaldian eta arlo ezberdinak landu zituzten.



OSTADAR SKT

Tourreko porrako sari banaketa

Hilaren 2an, Ostadar SKT Tourreko porrako sariak banatu zituen, Larrañaga harategian. Bi sari nagusiak zein urdaizpikoak jaso zituzten zortedunek. Larrañaga harategiko lagunei ere puntu gehien lortu duen denda izategatik saria eman zitzaien. Egun, Espainiako Itzuliko porra martxan dago; hilaren 11n amaituko da lehia eta horrekin batera, itzuliko zein porra nagusiko irabazleak jakingo dira.




Chourraut, Pauen lehian. BAT BASQUE TEAM

txartela lortu arren, bere balioa erakutsi eta seigarren postuan igaro zen finalera. Azken proban, aldiz, ate batean arazoak izan eta bederatzigarren sailkatu zen.


Hilaren 2tik 4ra, Munduko Kopako finalean lehiatu da herritarra, La Seu D'Urgellen. Lehen sailkatze proban seigarren denborarik onena egin zuen (91,17) eta ez zuen aurreko txapelketetan bezala, bigarren aukera baliatu beharrik izan.

Irailaren 3ko final erdian, berriz, kanala ederki ezagutzen duela erakutsi zuen; hutsik egin gabe lehen postua eskuratu zuen herritarrak (97,41). Finalean, berriz, erdialdeko errulo batean denbora galdu ostean, Chourraut seigarren iritsi zen helmugara.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Unai
Zure desio guztiak bete ditzazula bat izan ezik, bizitzan beti zerbait desiratu behar delako.



Araia
Zorionak bihotza! Zure egunean super ondo pasa izana espero dugu. Muxu potoloa amatxo eta aitaxoren partetik.



Ibai
Zorionak bihotza! Zure urtebetetze eguna primeran igaro izana espero dugu. Muxu handia familiaren partetik.



Luken
Ongi etorri Luken!!



Malen
Azkenean bost urtebtxo maiz! Zorionak etxeko lauan partez! Muxu potolo asko!

SUDOKUA

8			5	9	7		6	3
	3		2		8			4
		6			4			8
2		5		7	1	8		
			4	8		5		
	6	8		2	5			
9			8			3		
6	8		1				7	
	5	1				6	8	

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

JAIOTAKOAK

Luken Adin Otegui. Abuztuaren 10ean.
Danel Antxordoki Merino. Abuztuaren 16an.




Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Osteguna, 8




Ostirala, 9




Larunbata, 10




Igandea, 11




Astelehena, 12




Asteartea, 13



Asteazkena, 14



Osteguna, 15



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTEGUNA, 8	GANDARIA-URIBE	EGUNeko FARMAZIAK: 09:00-22:00
OSTIRALA, 9	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
LARUNBATA, 10	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
IGANDEA, 11	LASA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTELEHENA, 12	GIL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
ASTEARTEA, 13	ACHA-ORBEA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
AZTEAZKENA, 14	URBISTONDO	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
OSTEGUNA, 15	GANDARIA-URIBE	GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:	LARRIALDIKO TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29	OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84	DYA: 943-46 46 22
KIROLDEGIA: 943-37 61 82	GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81	UDALTZAINAK: 943-36 24 42
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79	ERTZAINAZA: 943-53 88 40
KIUB: 943-36 16 05	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21	
MUNTTERRI AEK: 607 62 52 33	

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dit irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zenbakia, 677 35 18 35 (Lourdes)

Etxebizitza bat alokatzen dugu Basaundi bailaran. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta balkoi handi bat ditu. Harremanetarako zenbakia, 678 37 40 72 (Joxe Mari).

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratuden apartamentua alokagai. 60 metro karratuden lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Irailera arte alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil.

Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

TAMANA

ESKAINITZA
Unibertsitateko ikasketak egiten ari den edota amaitu dituen pertsona behar dugu, DBHko 3. mailako ikasle bati eskola partikularrak emateko. Astean hiru egunetan beharko genituzke eskolak eta azterketa

garaian eskola extrak. Interesatuak honako telefono zenbakira dei dezakete: 630 73 29 49.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

8 urteko neska bat ikastolara eramateko pertsona bat behar da. Ikasturte osoa. Harremanetarako zenbakia: 607 35 87 15 (WhatsApp)

ESKARIA

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10. Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketara... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketara. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA
Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93. Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko errefortzu saio partikularrak eskaintzen ditut, DBH eta Batxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo **TXINTXARRI** erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Liemii Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Lide Hidalgo, Uku Odriozola, Julene
Iraola, Egoitz Epelde, Endika Merban,
Gorka Morales, Leyre Hungria, Ander
Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA




LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

**ESKURA
TU
EUSKARA**



**DIRULAGUNTZAK
BADAUDE.
GALDETU BALDINTZAK**

2022-2023 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

A1 eta A2 tituluak euskaltegian bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTURTEAREN IRAUPENA: IRAILAREN 22TIK EKAINAREN 22RA.

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA
ZABALIK
IRAILAREN
20RA ARTE




**GUZTIONTZAT
EUSKARA**

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943-36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

Maialen Lujanbio **Ametz Arzallus**
Gai-jartzailea: Amaia Agirre



BERTSO AFARIA
IRAILAK 23, OSTIRALA
20:00. Oianume, Urnieta. 30€

TXARTELAK: Kantoi, Matxo, Oianume, Ernaitza, Aiurri



EUSKARALDIA

ANTOLATZAILEAK:

AIURRI

Poxta Zahar



txintxarri

**UDAKO
ARGAZKI LEHIAKETA**

**Bidali zure argazkia
irailaren 12ra arte (12a barne)**

- 646 82 44 66 (whatsapp)
- txintxarri@ttakun.eus

Argazkia: Jose Manuel Bernardo (iazko irabazlea)

SARIA **aldika**  **produktu bereziak**